

AITOR DEL TESO: ISIPUAK JOSTAILU

Lezo Elias Salaberria margolari haundiaren kabia izanik, haren urratsak segitzen dituenik herrian ba ote zen begiratzen hasi nintzen eta ene ustez etorkizun oparoa duen margolari gazte batekin egin nuen topo, Aitor Del Tesorekin alegia.

Lantxo hau solasaldi baten fruitu bada ere hitz lauzko idazkeran, modu trinko batez, emango dut hasiera-hasieratik horrelaxe moldatu bainuen. Dena den, gauza bat argitu behar dut, lan hau 1993ko Ekainan egina dela eta aldizkarian ateratzea egoki iruditu zaidala jendeak bertako artisten berri izan dezan.

Aitor Del Teso Zaitegi


Lezon sortu zen 1972ko Uztailaren 29an langile giroko familia batean. Gurasoek pinturarako eta oro har arterako zuten zaletasuna medio, laister hasi zen erakusten eta pintura munduan murgiltzen. Oharkabean eta etxeko giroak bultzaturik, zaletuz joan zen erakusketatik erakusketara. Behin gurasoak bidaia batera joan zirelarik, Ana Díaz de Gallastegui margolari irundarra ezagutu zuten eta lagun handiak egin ziren. Geroztik Anaren erakusketa eta pauso guziak jarraitzen omen dituzte.

Aitorrek etxe aurrean du Lezoko San Joan Bataiatzailearen eliza eta bere lehen oroitzapen artistikoak beroni lotuak datozkio. Leihoan jarririk, arkatzez nahiz "plastidecor"-ez marrazten baitzuen. Gurasoek, Aitorren grina ikusirik, pintatzen ikastera animatu zuten eta honela, Erreterriako "Xenpelar" tailerretara joaten hasi zen. Tailer hauetan, berak aitortzen duenez, aukeran gutxi pintatzen zuten, arkatza, buztina, ispiluetako marrazkiak eta esku-lana egiten baizuten batez ere. Erreterriako tailer hauek itxi zirenean, Aitor kalean gelditu zen zer egin jakin gabe eta ikasteko gogo handiz. Amak Anarekin hitz egitea erabaki zuen eta Aitorren irakasle izan zedin eskatu zion. Anak baiezkoa eman zuen eta honela Aitor hamar urterekin Anaren Irungo estudioa joaten hasi zen pintatzen ikastera.

Egun, Aitorrek, Anarengana joaten segitzen du eta hasiera batean ikasle bakarra bera bazen ere, gerora anaia eta besteren bat ere joaten hasi ziren.

Hasiera hasieratik marrazten hasi zen, ontziak eta txarroak jartzen baitzizkion Anak. Esan daiteke beraz serioski orduan hasi zela, hamahiru bat urterekin. Urte bat baino gehiago pasatu omen zuen arkatzarekin eta karbontziolarekin lanean, marrazkiak difuminatu eta difuminatu gustoko trazaketa modua iritsi arte. Honek, bere gaurko lanetan eragin handia izan duela dio eta anaren esijentzia maila azpimarratzen du..

Lehen lan seriotzat hamalau urterekin egin zuen akuarela bat jotzen du eta geroztik egindako lan guziak etxean ditu ez zaiolako saltzea gustatzen nahiz eskaintza ugari izan. Asko jota erregalatu egiten ditu familiakoekin eta ezagunen artean, baina saldu, ezta pentsatu ere.



Dakien guzia Anari zor diola aitortzen du duda izpirik gabe. Anaren ildotik doala dio, Anaren estiloa asko gustatzen zaio eta berak pintura ulertzen duen eratik oso hurbil omen dago estilo hau. Arkatzarekin hasi, karbontziloa, pastel piska bat ere erabili zuen gero, akuarela, eta azkenik oleoaren bidez, inpresionismoaren moduen jabe eginez joan da Aitor. Aitorrek bere gustoko pintura errealismoaren eta abstrakzioaren arteko bidean kokatzen du. Bi muturrak baztertzen ditu, ez ditu gustoko. "Inpresionismoa da ikusten duzuna margotzea baina ez, den bezalakoa, zure baitan irudikatzen den bezalakoa baizik. Gauzak piska bat aldatuak ageri dira, ez da erretratoa, ez da dena perfekota ageri. Pasta asko erabiliz, errealitate horrek zuri eragiten dizuna marrazten saiatzen zara".

Bere pintura, errealitatetik ez hurbilegi eta ez urrunegi dagoena dela dio, bai gustoz, bai praktikaz. Ez zaizkio argazkia diruditen lanak gustatzen ez eta abstrakzio hutsean erortzen direnak ere. Kubismoa adibidez, eskulturarako egokiagoa ikusten du, gustokoagoa du. Esposizio askotan ikusten diren pintura perfektu horiek ez ditu gustoko; "Ez dizu ezertarako aukerarik eskeintzen".

Bere gustoko tendentzia zein den garbi eduki arren, ez du autore konkreturik garbiki aipatzen. Eskolan B.U.P. egiten hasi zenean, gerora utziko bazuen ere, artea ikastea tokatu zitzaion eta inpresionismora iritsi zenean, autore batzuek beregan izan zuten eragina edo ezustea aipatzen du; Renoir, Monet, Van Gogh eta batez ere Pizarro. Gehien honek eragin omen zuen, paisaia gehiago zuelako edo... Hurbilagoko artistetarik berriz, berriki egunkarrietan azaldu den López madrildarra aipatzen du. "Bere lanak ikusiz, inpresionismo bereiza lantzen duela ohartzen zara, ia perfektoak dira baina asko gustatzen zaizkit".

Aitorrek orain arte ez du esposizioak ikusteko bidai berezirik egin baina egiten dituen bidaia arrunt guziak aprobetxatzen omen ditu ideiak jasotzeko, esposizio edo galeriaren bat ikusteko eta azken batean, bere kultura artistikoa aberasteko. Paisaia diferenteak ikusteak asko laguntzen diola esaten du. Parisera eginiko azken bidaian Picasso-ren museoa ikusi eta oso harrigarria iruditu omen zitzaion, beste tendentzietako autoreak ikusiz asko ireki delarik. Txikitan, ikastolaren bidez ere Velazquez eta honelako autore handiak ikusteko parada izan zuela gogoratzen du.

Bestalde, udara Hondarribian igarotzen duelarik, bertako galeria mordoa azpimarratzen du, pintoreen herria da bere ustez. Bere lanean behintzat eragin handia onar-

tzen dio Hondarribiari eta beronen alde zaharra deskubritu beharreko tokizat dauka, inspirazio iturri, beti ere.

Bere lanei dagokienean, bere lehen oleoa aipatzen du, garai hartako gehienak bezala, bodegoi bat omen da; Jarroi bat eta bi tipula. Gaizki egina dagoela, dio, hala iruditzen zaio behintzat, baina ilusio handia egiten dio edukitzeak. Hasiara hartan dena bodegoia zen eta gero piskanaka, argazkietatik ateratako paisaiak pintatzen hasi zen. Dena den, orain ere errealitatea gutxi pintatzen omen du, lotsati samarra izaki eta nahiago du gordean aritu kale erdian baino. Leihoak eta terrazak aprobetxatzen omen ditu pintatzen aritzeko.

Lezoko txokoak pintatzea atsegin du, bai eta Jaizkibel mendia ere baina udarako asti murrizak eta kalean pintatzeko ausardia faltak asko mugatzen duela dirudi. Paisaia urbanoa ez zaio atsegin alde zaharrez gain ez du hiririk pintatzen, paisaia naturalak ditu atsegin irudi koloretsuak. Garbi ikusten da herriko txokoak pintatzeko egiten duen aukeraketa zorrotza: Alerruko iturria, Santo Kristo, Kale Nagusia...


Giza-erretratuak era edo modu inpresionista batean egiteko aurkitzen dituen mugak aipatzen ditu une batean. Aurpegi bat, den bezalakoa da, noski, errealitate bat gehiago da, paisaia bat izan daitekeen bezalaxe, baina aurpegi bat pintatzerakoan tarte txikia gelditzen omen da inpresionismoarentzat, margolariak ikusten duen aurpegiarentzat, jendeak uste baitu argazki tankerako irudi perfekto bat eginen duela margolariak. "Normalean gutxi aldatzen duzu, zuk, kolorea eta ematen dizkiozu zure erara, erropek eta itzalek uzten dizute jokatzeko daukazun aukera bakarra.

Kirola da, dudarik gabe, artista gazte honen zaletasun handienetakoa. Batez ere kirol gogorak gainera, usteko genukeenaren kontrakoa hain zuzen ere. Arraunari eskeintzen dizkio ordurik gehienak eta txirrindularitza ere egiten du ahal duen guzietan. Txikitan musikan ere hasi omen zen solfeora joanez baina preparatorio eta primero egin ondoren utzi egin zuen. Ordurako pinturarako grina barne barnean omen zerraman eta horri ekin zion. Bere afizioak begiratzuz, irudiaren mundurako duen joera garbia agertzen zaigu, gutxitan joaten bada ere, zinerako zaletasun izugarria duela aitortzen baitigu.

Bestalde, ikasketek ere denbora asko kentzen omen diote, izan ere "automatismo", mekanika antzeko zerbait ikasten ari da Don Bosco ikastetxean, L.H.-5. mailan aurkitzen delarik. Ondorioz, dio, ez duela ez irakurtzeko, ez beste afiziotarako astirik.

Astean bi orduz izaten ditu pintura klaseak Anarekin eta beste eginbehar horiekin batera oso gutxi pintatzen omen du negu partean. Udaran beti ere denbora gehixeago izaten denez, orduan egiten du lanik gehiena. "Halarik ere, inspirazioa eta ideiek ez dute urte-sasoirik, udaberriko naturak eta landaretza bizi horrek pintatzera bultzatzen nau. Egutegietako argazkiak ere, sasoi honetan irudi edo paisaia erakargarriak dakartzate. Neguan paisaia elurtuak aproposak izan ohi dira pintatzeko baina gainerantzean, arkatzez egindako lantxo batzutara mugatzen naiz". Sasoi bakoitzak bere xarma, bere erakargarritasuna duela dio.

Bere bizitza artistikoan etapak bereizteko orduan, sinpleki eta garbiki, materialak jartzen ditu bereizgarri etapa bakoitzean. Asko markatu omen zuen oleora pasatzeak, salto handia izan omen zen beretzat. Arkatza, karbonziloa, erabili zituen hasiera hasieran, ondoren akuarelara pasatzea ere erronka bat izan omen zen beretzat.



Akuarela ongi menderatzen oso zaila dela dio. Akuarela asko landu arren garbi ikusi omen zuen zaila zela lan onak egitea baina hala ere, lan politak badituela baieztatzen du. Anaiak eta biek, akuarela ez zutela menderatzen ohartu ziren berau landu zuten garaian. Aitorren benetako saltoa edo bigarren etapa, oleora pasatu zenean gertatu zen, egun, batez ere oleoa lantzen duelarik.

Lehen esan dugunez, Aitorrek ez du koadrorik saltzen, ez du inorentzat produzitzen. Ildo berari jarraituz, ez zaio erakusketarik egitea gustatzen, berak bere erara eta gisara egindako lan bat, pinturaz deus ez dakien batek kritikatzeko gorrotu du. Bere ustez, erakusketak ikustera joaten den jende asko kritika destruktiboa egitera joaten da, akatsak

ateratzera joaten da. Bada, bere ustez, gustoz ikustera joaten den jendea, hauei erakustea atsegin du baina askotxo sasi-jakintsuak dira. "Ez zait gustatzen inork esatea nola egin behar dudan, nik, neure gustoko lanak egin nahi ditut eta bakean utz nazaten nahi dut. Gustatzen bazaie ongi eta bestela ere bai. Orain, dakien bat etortzen bada eta gauzak behar den moduan esaten badizkit, ba bai, estimatzen du". Kritika eraikitzaile eta positiboek asko laguntzen eta bultzatzen omen diote. Anaren kritikak ere, askotan zorrotzak izanagatik, onartu egiten omen ditu.

Ez du sekula bakarkako erakusketarik egin. 1991ean Lezoko Udala eta Elias Salaberria pintura lehiaketaren elkarte antolatzailearen arteko gora-beherak medio, Lezoko margolari talde batek erakusketa bat antolatu zuen Andreone Kultur Etxean Santakruzetan. Aitorrek ere parte hartu zuen erakusketa horretan, lan asko aurkeztu zituelarik. Erakusketak, herrian arrakasta handia lortu zuen, bisitari asko, erosi nahi zuen jendea ere bai eta zer esan handia eman zuen. Erakusketan, Abel Corchero, Andoni Treku, Zurutuza, Susperregi eta beste batzuk ziren partaide Aitorrekin batera. Lehiaketa kolokan ikusita, zerbait egin beharra ikusi zuten eta erakusketa bat zabaldu zuten lunch-aurkezpen eta guzi.

Ez du lehiaketatan parte hartu nahi izaten, bere ikuspegiarekin ez baitatuz bat. Halarik ere, Lezoarra izanik eta herrian Elias Salaberria pintura lehiaketa izanik, urtero aurkezten ditu bere lanak lehiaketa honetara, lan ugari eraman ohi du gainera. Hau da, Aitor aurkezten den lehiaketa bakarra oraingoz behintzat. Denetik aurkezten duela dio; bodegoiak, paisaiak... Lehen aldikoz, 1988an aurkeztu zen, 16 urte zituelarik eta gazte mailako bigarren saria lortu zuen. Hurrengo urtean, gazte mailan irabazle gertatu

zen 17 urterekin. Gero helduen maialara pasaturik, lehen urtean, 1990ean herri mailako lehen saria irabazi zuen eta geroztik ez du saririk jaso.

Honek izugarrizko ilusioa egin omen zion, tartean jende ona zegoelako.

Lehen aipatu dugun erakusketa horren eta Elias Salaberria lehiaketaren ondorioz erosle batzuk ere hurbildu izan zaizkio, gehienak herrikoak baina ez du koadrorik saltzeko asmorik. Ez du sekula bat bera ere saldu, erregalatu izan omen ditu, azkenekoa berriki alargundutako izeba bati oparitu omen zion poz handia eman ziolarik, oleo bat hain zuzen ere. Akuarelak erregalatu ditu batez ere. lagunen batek noiz edo noiz eskatu omen dio bat egiteko eta honela erregalatu omen ditu. "Nik, gustatzen zaidalako margotzen dut eta ez hortik bizi edo probetxurik atera nahi dudalako, zaila da gainera hortik bizitzen".

Azkenaldian erretratuak egiten ari dela dio, pertsonen aurpegiak egiten ari omen da. Azken koadroa, neska baten erretratoa izan omen da. "Aurpegien kontu honekin asko ikasten ari naiz argiei eta erreflejoei dagokien arloan". Etxekoak pintatzen has-teko ongi prestatu beharko duela dio irriz.

Hain gaztea izanik, Aitorrek edozein harritura uzteko moduko kemena agertzen du bere postura artistikoa azaltzeko orduan, berak ez du handitasunik bilatzen, benetako afizioz pintatzen du, barru barrutik ateratzen zaiolako eta noski ateratzen zaion bezala. Bere pintura honela definitzen du; "Pintura gustatzen zaion batek, denbora pasatzeko egiten duen langintza. Pintura argi bat, pasta askorekin eta kolore biziez egina. Tono suabeak dira eta oso argiak, trazaketa oso difuminatua duten lanak dira. Bada trazo gogorreko lanen bat baina despistez egina iruditzen zait...".

Ez omen da seriozki behintzat beste estiloren batetako lanik egiten saiatu, paperean noiz edo noiz "abstraktu antzeko"ren bat egin omen du baina deus seriorik ez. "Askotan lehiaketara joan eta zure ondoko abstraktoari ematen diote saria, honek sortzen dizun harridura eta jakin minaren ondorioz zerbait zirriborratzen duzu. Zure paisajeak ez du saririk lortu eta gauzak zergatik ote diren bilatzen hasten zara". Bere lanak orohar inpresionistatzat dauzka, paisaje batzuk ezik.

Anaren ildotik doala garbi dauka Aitorrek eta gainera Anak hobetzen doazela omen dio. Anari bere irakasleak esaten zizkionak etortzen zaizkio burura orain, gero eta bere antza handiagoa hartzen ari direla alegia. Bere eskolakotzat ditu Anak.

JOXE LUIX AGIRRETXE

